

4. IRABAZI ITURRIAK

Gure produktuaren prezioa hasiera batetik 6,99 eurokoa izangoda. Hala ere prezioa dinamikoa izango da, hau da merkatuaren egoeraren arabera aldatuko da. Honen barruan, denbora errealeko merkatua izango da, eta eskaintza eta eskariaren legearen arabera finkatuko dugu prezioa. Beste alde batetik, prezio eskuragarria izango da eta produktu iraunkorra da, errentagarria eta birziklatutako materialekin egina.



Gainera, desgaitasunak dituzten pertsonak kontratatuko ditugu, horretarako gai direla uste dugulako, eta, jakina, gaizki iruditzen zaigu lan-eremuan diskriminatuta egotea. Beraz, gurekin lan egiteko aukera emango diegu eta, horrela, beraiei eskainitako lan bat esperimentatzeko aukera emango diegu.

Dirua irabazteko hainbat bide izango ditugu. Alde batetik, gure produktuaren salmentarekin, bai fisikoan, bai txartelaren bidez, bai Bizum edo Paypal bidez ordaindu ahal izango dena. Gainera, urtean 4000 euro emango dizkigute pertsona ezinduek kontratatzeagatik. Hasiera baten diru hori enpresarentzako onura gisa erabiliko dugu; hala ere, egonkortasun ekonomikoa dugunean, diru-sarreraren % 40 emango diegu ezinduekin lan egiten duten ONGei.

Gure etorkizuneko dirua emateko eskura ditugun ONG guztien artean, bi aukeratu ditugu. Horiek iruditzen zaizkigu egokienak, gure enpresaren oinarria kontuan hartuta. Alde batetik, CNS dugu: Espainiako Gorren Konfederazio Nazionala irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekintzako GKE bat da, pertsona gorren aukera-berdintasunaren alde borrokatzen duena. 17 federazio autonomikok eta gorren 118 probintzia- eta toki-elkartek baino gehiagok osatzen dute.

Bestalde, ASPACE: Espainiako ezinduentzako elkarte garrantzitsuenen artean, ASPACE da garun-paralisiaren arretarako erakunde nagusiak biltzen dituenak. 18.000 bazkide inguru ditu, horien artean garun-paralisia duten pertsonak, senideak eta lagunak.



Jakina, gure harri-koskorra emateko prozesu hori guztia etekinak lortzen hasten garenean hasiko da. Lehen aipatu bezala, gure asmoetako bat pertsona horiei ikusgarritasun handiagoa ematea da, eta ahal den neurrian lagundu ahal izatea.